



EBAZPENA, 2025eko apirilaren 9koa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, zeinaren bidez onartzen eta xedatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan ordezkapenak egiteko izangaien behin-behineko zerrenda argitaratzea 2025/2026 ikasturterako.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan irakasleen aldi baterako premiak betetzeko ordezkogaien zerrenda kudeatzeari buruzko araudia onartzen duenak, V. kapituluan eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko lan-legepeko irakasle eta hezitzaileentzako hitzarmen kolektiboak III. eranskinean xedatutakoaren arabera, 2025/2026ko ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan ordezkapenak egiteko ordezkogaien zerrenda urtero birbarematzeko prozedura egin behar da.

Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2024ko abenduaren 4ko Ebazpenaren bidez, aipatutako birbarematzeko prozedura ireki zen.

2024ko abenduaren 5ean argitara eman ziren ordezkogaien fitxak, eta 2024ko abenduaren 5etik 16ra (biak barne), epea ireki zen aukerak aldatzeko, merezimendu berriak aurkezteko edo nahi ziren alegazioak egiteko.

Epe hori pasa ondoren, ordezkogaiek eskatutako aldaketak eta aurkeztutako dokumentazioa eta alegazioak aztertuta, 2025/2026ko ikasturtean ordezkapenak egiteko ordezkogaien behin-behineko zerrenda ematen da argitara. 2024ko abenduaren 4ko ebazpenak zazpigarren atalean azaltzen dituen egoeretan dauden pertsonak integratu dira zerrenda horretan. Bestalde, 2024ko abenduaren 4ko ebazpenaren zortzigarren eta bederatzigarren ataletan azaltzen den egoeretan dauden pertsonak zerrendetatik at geratu dira.

Aipatutako zerrendan aukeren aldaketak, onartu direnak, eta aurkeztutako merezimendu berrien barematzea sartzen dira. Halaber, zenbait izangairen ordezkapen-aukeretan eta merezimenduen baremazioan antzemandako akatsak zuzentzen dira, zuzenketa horren ondorioz puntuazioa murriztu ahal izango baitzaie.

Horregatik,

EBAZTEN DUT:

Lehenena.- Argitara ematea 2025/2026ko ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan ordezkapenak egiteko ordezkogaien behin-behineko zerrenda.

Bigarrenena.- Zerrenda horiek <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/hezkuntza-langileak/> Ordezkapenetarako izangaiak / Irakasleak edo Irakasleak ez diren langileak (kasuaren arabera) / 2025/2026 ikasturtearen birbaremazioa web orrian eta Interneteko helbide honetan: <https://hezigunea.euskadi.eus/eu> (sartu NAN/AIZ eta pasahitza) - Eremu pertsonala – Izapideak langileen sailarekin– Ordezkapen izangaien birbaremazioa – 2025/2026 ikasturtea.

Hirugarrena.- Erreklamazioak egiteko epea irekitzea 2025eko apirilaren 10etik 16ra, biak barne. Epe horretan bertan zuzendu ahal izango dira aurkeztutako dokumentazioan edo hasierako birbaremazio-epean egindako eskabidean egindako akatsak.

Erreklamazioak telematikoki egingo dira, Interneteko helbide honetan: <https://hezigunea.euskadi.eus/eu> (sartu NAN/AIZ eta pasahitza) - Eremu pertsonala – Izapideak langileen sailarekin– Ordezkapen izangaien birbaremazioa – 2025/2026 ikasturtea – "Erreklamazioak eta/edo zuzenketak". Azken atal horren barruan:

- "Dokumentazioa" eta/edo "Kontserbatorioak/Dantzerti" erlaitzan, birbaremazioaren hasierako epean entregatutako eta erregistratutako dokumentazioa kontsultatu ahal izango da, eta lerro bakoitza sakatzean "Administrazioaren erantzuna" atala. Azken atal honetan, dokumentazio horren egoera erakutsiko da (baliozkotua, baztertua edo zuzentzeko zain), eta, azken bi kasuetan, arrazoia eta/edo, kasuaren arabera, azalpen bat jaso ahal izango da "Oharra" atalean.
- "Erreklamatu/zuzendu" erlaitzan erreklamazioa eta/edo zuzenketa aurkeztu ahal izango da beharrezkoa izanez gero, Administrazioaren erantzuna berrikusi ondoren. Erlaitza horren barruan, goiko aldean, erreklamazioa eta/edo zuzenketa aurkezteko moduari buruzko jarraibideak agertuko dira.

Laugarrena.- Karrerako funtzionario izendatu dituzten kidegoari dagozkion espezialitateetako zerrendetatik kanpo uztea honako prozesu hauetan parte hartu duten pertsonak:

- a) Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko eta azaroaren 30eko aginduen bidez deitutako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesua. Karrerako funtzionario izendatu dituzten kidegoari dagozkion espezialitateetako zerrendetan baztertuko dira.

UNAI NIETO MARIJUÁN
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

Vitoria-Gasteiz, 2025eko apirilaren 9a